




Hizkuntza erabileraren neurketa

dFERIA


Hizkuntzaren azterketaren emaitzen ondorio eta
balorazio txostena

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarte
2013/03/21

ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.

Ahozkoan eta **ikuskizunetan** erabilitako hizkuntzari dagokionez, euskararen eta gaztelararen presentzia eta erabilera ez dira parekoak izan. Iazko datuekin alderatuta euskarazko ikuskizunetan euskararen presentzia ehunekotan, behera egin du (%61,29 gaztelaraz, %25,81 hizkuntzarik gabe, %12,90 euskaraz). Ikuskizunen kopuruari dagokionez 27 ikuskizunen 31 emanaldi programatu dira (19 emankizun gaztelaraz, 8 testurik gabe eta 4 euskaraz).




Ikuskizunen jatorriari erreparatuz gero %51a euskal ekoizpenak izan dira, %41 Estatuko gainontzeko autonomi erkidegoetakoak eta %12a, atzerrikoak.

Bestetik, ikuskizunen aurretik egin diren **aurkezpen** gehienetan elebitasuna mantendu da.

Asteaz zehar egin diren **prentsaurrekoak** orokorrean hartuta, euskaraz gora egin du:

Iaz %76,19a gaztelaraz izatetik aurten %62,50era jaitsi da. Ele bietan izan diren prentsaurrekoak berriz, gora egin dute %23,81etik %37,50era. Horretaz gain, prentsaurreko guztietako agurretan euskara erabili da.



Aurrerapauso nabarmenena **jarduera paraleloetan** topatu dugu. Iaz, jarduerak gaztelera hutsez izatetik, aurten euskarazko jarduerak nagusi izatera pasa da (4 jardueretatik 3 euskaraz izan dira eta bakarria gaztelera).


Idatzizko materialari dagokionez, antolakuntzak kaleratzen duen materialean (esku programa, programazio liburuxka, web orria, dFERIAko esku informazioa, kartela, ...) ele bitasuna mantendu den arren, hutsune nabarmenena astean zehar egiten diren prentsaurrekoetan antolakuntzatik banatzen dituzten prentsa dossierretan (hau da, Donostia Kulturak dFERIArekin parte hartuko duten konpainien prentsarako dossierretan) topatu dugu. Antolakuntzatik kanpo dauden beste argitalpenenetan (guk eskuratu ditugun esku orrietan) iazko datuekin alderatuta elebitasunak gora egin du.

Guk jaso ditugun konpainien prentsa **dossierretatik**:

% 66,67a gaztelera (iaz % 45,45).

% 28,57a ele bitan (iaz %45,45).

% 4,76a euskaraz izan da (iaz %9,10).



Konpainien **esku orriak**:

% 50 ele bitan (iaz % 36,36).

% 42,86 gaztelera (iaz % 54,55).

% 7,14 euskaraz (iaz ez zen egon).

% 0 hizkuntzarik gabe (iaz %9,09).

Laburbilduz, BAGERA Elkartek, aurtengo dFERIA2013 edizioan euskararen erabileran aurrerapausoak ematen jarraitu direla deritzo, aipatu bezala, aurrerapausorik nabarmenena jarduera paraleloetan izan da, prentsaurrekoetan ere euskararen erabilera igo den arren oraindik gazteleraren azpitik jarraitzen du nabarmen. Material idatzian, hutsunerik handiena berriz, antolakuntzatik banatzen diren prentsa dossierretan dago. Beraz, ondokoa proposatzen die BAGERA Elkartek dFERIAren antolatzaileei: prentsaurrekoetan euskara erabilera areagotzea, prentsa dossier guztietan, gutxienez, elebitasuna bermatzea eta lortutako aurrerapausoetan sendo mantentzea eta euskararen erabilera areagotzen jarraitzea (prentsaurrekoetan, aurkezpen berezietan, ikuskizunen kopuruan). Bide horretan, BAGERAren esku dagoen heinean, laguntza behar izanez gero, beti prest edukiko gaituzue.